# Disuasiorako hiri-aparkaleku mistoa eta bidegorriarekin konexioa

## Arrigorriagako Udala

*Eje 3: Recursos energéticos y acceso a servicios de transporte*

***3.25: Estacionamiento urbano mixto disuasorio y conexión con carril bici***



EGEF Eskualde Garapenerako Europar Funtsak
FEDER Fondo Europeo de Desarrollo Regional
"Europa egiteko bide bat"
"Una manera de hacer Europa"

Proiektu honetan disuasio-aparkalekua jarri eta hiri- nahiz autobus-aparkaleku bezala erabiliko da. Gainera, egungo bidegorriarekin eta oinezkoentzako ibilbidearekin konektatu da, kirol-gunetik araztegiraino.

Beraz, aparkaleku honek hurrengo helburuak ditu: kamioi eta autobusetarako aparkalekua izatea, udalerrian turismoetarako aparkalekuen eskaintza gehitzea, egun kirol-gunetik araztegiraino doan oinezkoentzako ibilbideari jarraipena ematea eta, azkenik, parkeraino oraingo bidegorria jarraitzea.

*Una manera de hacer Europa*
Fondo Europeo de Desarrollo Regional

BFA DFB

Unión Europea

Bidegorriarekin konexioak joan-etorrietarako baliabide hori erabiltzea sendotzen du, hortaz, proiektuak mugikortasun iraunkorra sustatu eta, bide batez, ibilgailu pribatuen eta industrialen kopurua murrizten du. Ildo horri jarraiki, zaratak, poluzio-igorpenak eta energia-kontsumoak murrizten dira, hirirako moduko garraioa sustatzen da eta, oro har, beste garraio-baliabide garbiago batzuk (hala nola garraio publikoa eta bizikleta) erabiltzen dira.

Disuasio-aparkalekua Mendikosolo parkearen sarreraren parean kokatuta dago, hain zuzen ere, BI-3723 errepidean (Arrigorriaga-La Peña), A-68 autopista gurutzatzen duen zubitik Goiko Bentarako errepidearekin dagoen bidegurutzeraino.